

5. ZENBAKIAREN AURKEZPENA

Montserrat Auzmendi del Solar

Erredakzio zuzendaria

Zuzenbide konstituzionalari eta, bereziki, Zuzenbide parlamentarioari buruzko gaiak jorratzen dituzten argitalpenen artean, *LEGAL - Eusko Legebiltzarraren Aldizkariaren* erredakziotik saiatu gara desberdintasuna markatzen duten elementuak bilatzen. Eta, horretarako, gogoeta interesgarriak aurkitzea hain ohikoa ez den gaiak jorratzea erabaki dugu. Gure irakurleen eskura ikuspuntu desberdinak jartzen saiatu gara, *mainstream*-ean enkoadratzen ez diren ikuspegiak eskaintzeko heldurrik gabe. Beti izan ditugu esku libreak egile ausart eta originalen gogoetak agerian uzteko.

Eta 5. zenbaki honetan berriro lortu dugula uste dut. Gure Azterlanak atalean, bete-betean sartzen gara gure ganberentzat, eta, oro har, erakunde guztientzat erabakigarriak diren gaietan. Aitortu behar dugu komunikazio instituzional egokia eta Parlamentua herritarrei irekitzeko mekanismoak ezartzea funtsezko gaiak direla eta ez daudela erabat konponduta. Eta gai horiek argitzeko, Eva Camposek eta Francisco Javier Lópezek bi lan bikainekin ilustratzen gaituzte.

Baina, gainera, gai polemikoei buruzko eztabaida sustatu nahi dugu. Brian Buchhalterrek ikerketa-batzordeen xedeari buruz egindako lan bikaina eta Iker Lauzirikak sareetako publizitate politikoari buruz, eta etengabe hor inguruan dabiltzan desinformazioari buruz egiten duen analisisa oso interesgarriak dira eta pentsarazi eta eztabaidaraziko diguten bi testu dira.

Bestalde, ale honek ahalegin berezia egin du gure irakurleei Konstituzio Auzitegiak eman berri dituen epaien azterketa onak ekartzeko, Legebiltzarreko errea-

litateari oso lotuta baitaude. Raúl Gómez, Nicolás Pulido eta Javier Ruiz parlamentuetako legelariak, bai eta Aratz Labaienek eta Markel Zubiagak ere, zeinek bikain egin baitzituzten Zuzenbide Graduko praktikak gure erakundearen, beren ikuspuntu bereziak eskaintzen dituzte jurisprudentzia-erabaki horiei buruz.

Eta Dokumentuak izeneko atalean, Miguel Herrero y Rodríguez de Miñónnek 2002an Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Batzordean egindako agerraldiaren transkripzioa zuen eskura jartzen dugu. Arretaz irakurtzea merezi duen dokumentu argia. Elixabete Piñolen, batzorde horretako lehendakaria izan zenaren hitzaurrea du. Ohore handiz izan nintzen batzorde horretaz arduratzen zen legelaria, eta egindako lanetatik eta Elixabete Piñol lehendakariarengandik bereziki oroitzapen atsegin bat gordetzen dut.

Eskerrik asko irakurtzeagatik. Espero dut zenbaki honek, aurrekoek bezala, zuen interesa piztuko duela. ♦